

URDAIBAI

2015
zenb. 04

MAGAZINE ONLINE

ARRANTZA KUDEAKETA

EUROPAN ERABAKI
BERTON ERAGIN

- MARIJESIAK BUSTURIALDEAN
- ANGEL ALLENDE SALAZAR JAUNA, OPAROA ETA "BASCOFILO"A
- INTXAUR SALTSA
- TXATXARRAMENDIKO PARKE BOTANIKOA
- OGI SALUTAUE, OGI BEDEINKATUE

SANTA CLAUS-ERI BELDURRIK BARIK

Munduan distantziak labur geratu dira, dana dago danagaz lotuta, komunikabideak gero eta bizkorragoak eta zuzenagoak dira, garrarioa gero eta aurreratua dago, informazioa berehalakoa da, hau da, globalizatuta; ideiak, jarrerak, aspirazioak... soziazializatzen dazuz eta gustuak eta usadioak bateratu, unibertsalizatzeko asmoz.

Egoera horretan, esentzia desagertzeko beldurra dagoenean, izaera ezberdinak agertzen dira, eurena aldarrikatu eta indarrean jarriz, diskurtso eguneratuagaz eta sustrai sendoez. Gure historia, gure lurraldearen bilakaketa, geure usadio eta bizimoduak ezagutu eta zabaltzea, gizaki, espiritu, hizkuntzalaritza, sozio-ekonomia, ingurumena... guztiaren dimentsio osoa hartuta. Horixe da baldintza, hazteko eskubide eta ardureagaz koherenteak diran bitzita proiektuak eraikitzeko, talde eta herrien dibertsitatea kontuan izanda bizikidetzan laguntzeko.

Bizi, bizitzen itxi eta bizitzen lagundu bizi-filosofia bat da, introspektzioa, historia genetikotik edo ikasitik hartu eta beteten dana, baina beti be kultura oinarri dala. Eta hortxik, historiaren hondar horrextatik, neguro, sortzen da benetako senidetasuna eta gure inguruan ezartzen da aldi baterako. Gabonetan, tradizioak, emozioak eta sentimenduak nahastena dira familietan. Antzinako kutsu erlijioso nahiko galduta, baina Marijesiak, Errege Magoak, Olentzero... antropologia kulturalak tradizioei eusten deute, geure sustraletara lotzen gaituztenak direlako, nora joan eta zelan esaten deuskuenak mundu global honetan. ■

HARPIDETU!

Aldizkaria jaso nahi badozu, kontaktatu hemen: nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
tel.: 94 625 06 06

URDAIBAI MAGAZINE
NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK
BURUTU DAU:
Ideia, edukiak, testuak,
argazkiak, diseinua, maketazioa
eta produkzioa.

ARGITARATZAILEA:
NUEVA EUROPA S.M



Carlos Gangoiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
www.nuevaeuropa.com

Zer ideia ona!
nueva europa

AURKIBIDEA

ERREPORTAJEA



LEKUKO



KALERIK KALE



SAL TSA-PORRU



BERDEAN



BETI-JAI



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015
Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.

A photograph of a fisherman on a boat, wearing a blue vest and glasses, handling a large net full of fish. The background shows other boats and buildings in a harbor.

ARRANTZA- KUDEAKETA, EUROPAN ERABAKI BERTON ERAGIN

Europar Batasunak zarratu dau 2016rako Urteko Harrapaketa Tasak (TAC) eta Atlantikoko arrantza kuotak banatzeko akordioa. Erabagi honek zuzeneko eragina dauko gure arrantza sektorean eta arrantzaleek Kantauri itsasoan harrapatzen dabezan espezie askorengan, legatza edo sapoa, esate baterako.

Izaskun Bilbao euskal eurodiputatuak, eta "Grupo de la Alianza de los Demócratas y Liberales por Europa" (ALDE) taldeko presidenteordeak Euskadiren eta gure arrantza sektorearen interesak defenditzen dauz Bruselan eta Europak jarritako neurrien gorabeherak argitzen deuskuz.



Izaskun Bilbao, arrantza sektoreko ordezkari ezberdinekaz Europako Parlamentuan (Artxiboko argazkia)

Zelako eragina izango dabe gure arrantza sektorean Europar Batasunak hartutako akordioek?

2016rako kuotak banatzeko akordioen gainean esan behar da modu ezberdinetan eragingo dabela. Bajurako arrantzari jagokonez, antxoa eta hegaluzearen kuotak aurreko ekitaldiko maila bardinetan mantenduko dira, baina ez da hori gertatuko hegoalde- legatzagaz edo berdelagaz, %22 eta %15 murriztu dalako hurrenez hurren. Alturakoan, badago barri pozgarririk, ze iparraldeko legatz stockean kuotak %19 igo dabez eta itsas oilarrarenak %5.

Eta Bizkaiko eta Bermeoko flotari?

Kuotak estatu espainiarrari ipintzen jakoz, eta Gobernuari, antxoaren eta hegaluzearen kuoten banaketa alaitzen arinen egiteko eskatu ahal jako arrantzaleek euren prebisinoak egiteko. Berdela eta hegoalde- legatzaren kasuan, asko murriztu dira eta sektorean eragin handia euki leike, banaketan, irizpide malguak ez badira erabiltzen kaltetutako itsasontziek azkordiora heltzeko eta Eusko Jaurlaritzak esaten eban moduan, ondorio sozial eta ekonomikoak ez badira kontuan hartzen itsasaldeko herrietan, batez be Bermion. Horregaitik, beharrea jarraitu behar da eta Espainiako Gobernuari errealitatearen eta horrelako banaketa zorrotzak zelako eraginak eukiko leukezan gure flotan aztertzeke eskatu behar jako.

Zelako irizpideak izaten dira holako akordioak hartzeko orduan?

Akordioak urtero abenduan hartzen dauz "28 Estatu Kideen" Ministro Kontseiluak. Irizpide zientifikoak erabiltzen



Bermeoko portua

dabez eta gainera, beti kontu handiz, baina gardenagoa izan beharko leuko. Arrantza mota bakotzeko kudeaketa planak onartzea izan beharko leuko kudeaketa hobea izateko tresna. Baina orain arte ikusi dogu esate baterako antxoa, Kontseiluak, Estatuak, geratu egin dabela. Aitatu dodazen planekaz arrantza politikearen eskualdeko planak egin ahalko litzatekez, irizpide gardenak ezarri eta kudeaketa egoki bategaz bat datozenak, jasangarritasun sozial, ekonomikoa eta ingurumena kontuan hartuta.

Zelan defenditzen dira European gure arrantzaleen interesak?

Arrantzaren gaineko Nazioarteko akordioak mantentidu eta hobetu gura doguz (Guinea Bisau, Cabo Verde...) ze euskal itsasontziei beste leku batzuetan arrantza egiten baimentzen deutse eta kontaktua izatea lurralde berezietan (Reunion Irletarako bidaia 2015-11-05). Jarduera honegaz batera, aitortu bako eta araudi bako arrantza galazotea eta ingurumen eta gizarte-dumping-aren aurkako borroka egingo da, arrain freskoagaz eta eraldatuaz zer ikusia daukolako.

Sektoreak gizartean dauan irudia hobetuko da. Lisboako Tratatu betetzearen alde egingo da, arrantza arloan Europako Parlamentuak Urteko Harrapaketa Kuoten ezarpean erabagia eskubidea euki dagian hainbat urteetarako arrantza- kudeaketa planen bidez.

Ze eragin eukiko dabe azken kontsumitzailearengan?

Azken kontsumitzaileari? Argi eta garbi dago; zenbat eta kuota gitxiago euki gure sektoreak, orduan eta ohituta gagozan arrain fresko eta kalitate oneko gitxiago izango dogu geure esku. Gainera, kontserberentzako be arrain gitxiago egongo da, baina badiñot, sektorean pentsau behar da, jasangarria izan daiten eta itsasoaren baliabideen kudeaketa hainbat urteetako planekaz egin dagigun. ■



MARIJESIAK BUSTURIALD

Gabon soinu isilak, sentimendua musika

Busturialdean Gabonetako musika-banda zein dan galdetuko bageuntso geure buruari guztiok esango geunke berdina: "Marijesiak", gure herrietan Gabonak iragartzen dabezan bertso eta musikak... espiritualitatea, alkarrengana batzea, familia, berotasuna, maitasuna... aldarrikatzen dabenak.

Goizaldearen iluntasunean eta hotzean urrunetik jatorkuzan Marijesien duintasun barrenak astintzen deuskuez, zirrara sortu eta hurreratu ahala, kantuek Gabonetako magia, sentiazoten deuskue. Euren bertso eta melodia onirikoek iragartzen deuskue Jesusen jaiotzea.

Betiko tradizioa dogu Busturialdean, geurea eta estimadua. Herriko nagusiek gogoan dauke umetan goizaldeetan Gabonak iragartzen ebazan bederatzirena. Gau magikoak dira, onena Gernika-Lumon bertan lo egitea da gau horretan eta ohetik, epel-epeletan, entzun. Nahikoa da argi kiñu bat badakigula han dagozala jakinarazteko eta gu be han gaituela. Gaueko errondan eskertuko dabez holakoak.

Jose Antonio Arana Martija euskaltzain gernikarrak <Canções de Navidad-Gabonetako Kantak, Colección Temas Vizcaínos, 1981> lanean argitaratu ebazan Gernika-Lumoko Marijesiak, beharbada antzina antzezten ziren "Misterioetan" daukela jatorria. Izan be, badauke antzik orduko ospakizun hareekaz: bakarlaría eta taldeak ez doaz batera, eliza aurretan belauniko abesten da bertso bat, eta bederatzirenean, hiru doinu ezberdin erabiltzen dabez, antzeztan bateko hiru zati balira moduan. XVII. mendeko antzeztan baten bertsoen antzekoak be badagoz. Tradizioak gernikarrei esker dirau, edade guztietakoak, gazte, nagusi, gizon zein emakume batzen dira "Gabonetako deia" egiteko.

Usadioak agindu legez, goizaldeko lauretan hasten da errondea Gabon aurreko bederatzire egunetan. Santa Maria eleizaren ate zaharraren aurrean bakarlariak, taldetik metro batzuk aldentuta eta taldeak, abesten dabe bertso bat belaunikatuta. Gero, pausu arinean segiduten dabe errondea neguko hotzari aurre eginez; ibilbidea gaur egun ez da lehengoa, aldatuta dago, herriko leku guztietara joatearren. Eleizetan eta kapiletan gelditzen dira, baita lehengo eta oraingo bakarlaríen etxeetan be. Bakarlariak koplaren lehen bertso biak kantetan dauz eta taldeak bertsoari se-

DEAN, eginda.



giduaz erantzuten deuto. Errondeak ordubete eta 45 minutu irauten dau eta azken egunean, goizean be egiten da. Ordun, gainera, Pasealekuan "Tortimortxi-txokolatada" egiten da eta txistulariak lagun direla, abesten da donatiboak batzeko eta laguntasuna emoteko elkarte edo talderen bateri.

Marijesiak, Busturialdeko beste herri batzuetan be izaten dira. Mendatan, Gabon bezperan kantetan dabe, abenduaren 23an. Herritarrek talde bi egiten dabez, batak herriaren goialdean eta besteak behealdean abesten dabe. Umeek hasieran hartzen dabe parte eta nagusiek gau erdirarte ibiltzen dira kantuan. Herriko abesbatza be bai. Batzen dan dirua urte birik behin herriko nagusiei omenaldia egiteko erabiltzen da.

Errondan, farola eroaten da eta makilak txilinekaz. Inoiz trikiti-xagaz be lagundu da kantuan. Muxikan, Gorozika eta Ariatza auzoetan, Marijesiak edo Gabonetako errondak egiten dira. Etxerik etxe ibiltzen dira kantuan abenduaren 23an. *Abendu Santu honetan...* abesten da, baina Gernikako moduan barik beste melodia batzuekaz. Gautegiz Arteagan, herriko umeak dira Gabonetako erronden protagonista "Marijosiak".

Gernika-Lumoko marijesiak

Neska-mutilak be abeslari

Ean bene-benetako debozioz bizi izaten dabez Gabonetako errondak "Eako Abendu mutilak" garai batean, gaur egun "Eako Abendu". Horren berri emoten deusku Esther Kortak bere "*Antzinako Kontuak*" liburuan: "...*Lehenago Gabon aurreko bederatzi gabetan, abenduaren 15etik 23ra, 9 mutilek, kanpai ,txilin, farol eta makiila eskuetan dabela, Kurtzia kalean hasi eta Abendu kantetan eben etxerik etxe. Eleiza aurretan, belaunikatu eta Sakramentu abesten eben. Gabon egunean, goizeko 6retan hasi eta hiru buelta emoten eutsezan herriari, bakotxean abesti bat kantatuaz. Batzen eben diruagaz mezea ateraten eben.*"

Gaur egun tradizioa bizirik dau, herriko neska-mutilek urteten dabe kantuan.

"Abendu" eta "Mendia" kantetan dabe, egun batean bata, hurrengoan bestea. Abenduaren 24an Bedaronara eta Natxiuara joaten dira eta "...*bart Belenen...*" kantetan dabe.

Marijesien Koplak...

"...*Abendu Santu honetan...*" "...*Maria, Jose, Jesus, Maria*"

"...*Jesukristo, adoratzen zaitugu, Jesukristo*"

"*Ta bart Belenen...*" ■



ANGEL ALLENDE SALAZAR JAUNA, OPAROA ETA “BASCOFILO”A

E torbide batek, kale batek eta ikastetxe batek daroe bere izena jaio zan herrian. Bizi laburra izan eban, baina oso emonkorra. Karrera diplomatikoagaz batera, euskal literaturaren eta euskararen gaineko agiriak batu eta ikertzen be denbora luzea emon eban.

Angel de Allende Salazar y Muñoz 1854ko irailaren 24an jaio zan Lumon, familia txit ospetsuan. Manuel de Allende Salazar y Loizaga Montefuerteko hirugarren Kondearen semea eta Madrileko alkatea, Senatorea eta Senatuko Presidentea eta Ogasun ministroa izan zan. Manuel de Allende Salazar y Muñoz jaunaren anaia izan zan.

Angel maite-maite eben bere jaioterrian; baina alkarrenganako maitasuna zan eta halantxik erakutsi eban azken borondateetan, Gernika-Lumon lurperatzea nahi ebalan esan eban eta. Gazte hil zan eta garaiko gizartean eragin handia izan eban haren heriotzak. <Euskal-Erria> aldizkariak, istorio latza eta mingarria argitaratu eban euren kolaboratzailearen heriotza zala eta: "... 30 urte baino ez ebazala, gaixotasun larri baten eraginez, herrialdeak gehien espero ebanean bere jarduera eta adimenetik joan jaku...Mundu guztia dago penatan, Jurisprudenzia Akademiak, non kide beste lagun ebazan, hilaren 20an saio publikoa eten egin eban doluz. Bilboko udalak aktaz jaso eban zoritxar haren sentimendua... Gernika osoa, herriaren alde hainbeste be-

har egin ebanaren doluz, lutoz jantzi zan, euren babeslea hil zala jakitean" Publikazio horreketan esaten zan Bilboko geltokian bat-bateko hil kapera ipini ebela eta handixik urten ebalan segizioak bidez Gernika-Lumora. "... Gernika osoa joan zan azken omenaldia emotera. Allende Salazarren alargunak saminez beterik eskatuta, gorpuzkiagaz batera Gernikako arbolearen adar bat lurperatu zan..." Hileta-oharrean esaten da herrian inoz baino lutorik handiago egon zala, nahiz eta feria eguna izan, denda guztiak egon ziren zarratuta eta balkoi askotan behera krespoi balzak egoazan. Bere izena ipiniko jakon, baina ezagutu ez eban eraikitzen egoazan ikastetxean be errotulu bat ipini eben: "Il da aita emengua. D. Angel Allende Salazar".

Gernikar ospetsua, urte gutxiren buruan, bizitza intelektual oparoa eta emonkorra izan ebana. Juristea eta bibliografoa izan zan, euskararen maitalea eta ikertzailea. Zuzenbide Zibil, Administratibo eta Kanonikoan, eta Filosofia eta Letretan Doktoradutza eukon eta karrera diplomatikoa aparta. Ikasle garaian egin eban euskararen bibliografiaren





gaineko memoria handia eta ederra burutzeko materialak batzen hasi zen, gero . "Laurak bat- Biblioteca del Bascófilo" deitu eban. Lanak Liburutegi Nazionalaren saria jaso eban 1877an " *hil eta gero argitaratu zan, 1887an bere anaia Manueleri esker*" diño <Auñamendi Eusko Entziklopediak>. Doktoradutza jasotzeko Unibertsitate Zentraleko Filosofia eta Letren Fakultatean emon eban diskurtsoa be Euskal Literaturaren gainekoa izan zan.

Euskal Herriari buruzko lanetan: "Ercilla era vizcaíno" <Euskal Erria> aldizkariak argitaratua, "La Codificación Civil y las Legislaciones Forales" Iruneako <Revista Euskara> aldizkarian argitaratua edo "El dualismo de la Legislación Civil de Bizcaya" Legislacion aldizkarian argitaratua daukuguz.

Diplomatiko beharrean, Gernika barrutitik Gorteetarako diputatua izan zan, Diputatuen Kongresuko idazkaria, eta Jurisprudenzia Akademiako kidea. 1881eko abenduaren 20an lortu eban Madrileko Diputatuen Kongresuak Gernika eta Lumoren bat egitea onartzea, bakoitza bere arau-

diagaz. Gernika uriburuan Kode Zibila eta Lumo elizatean Foru Bizkaitarra, 1987an José Antonio Arana Martija euskaltzain gernikarrak adierazi eban moduan.

Gaur egun, Gernika-Lumon "Allende Salazar", eskolan bizirik dirau haren gomuteak; erakunde honen jarduera belaualdi barriak heztea da, herriarentzat ezinbestekoa. Bestalde Allende Salazar etorbidea eta Allende Salazar kalea dagoz, bere omenez. Kale horretan dagoz Gernikako Batzar-etxea eta Gernikako Arbola. ■

INTXAUR SA



Gabonetan berreskuratu da geure baserrietako neguko jatekoetako bat,

INTXAUR SALTSEA. Lehenago, osagai nagusiak intxaurrek eta esnea izaten ziren. Gaur egun, baserri inguruetan dagoz orduko intxaur arbola sendo eta ederrak, hain estimadu eta balore nutrizional asko daukozan fruitua emon ebenak eta emoten dabenak. Eta intxaur berbea erabilia hainbat esamolde be bai: *“urrutiko intxaurrek hamalau, hurreratu eta lau”, “ ez izan intxaur saltsea”.*

SALTSA,

Intxaur saltsea ez da atzo goizeko kontua, 150 urtetik gora daukoz, baserrietan intxaur ugari egoan denboretakoa da eta. Udazkenean batzen zan eta urte guztirako egoan, denborak gainera hobetu egiten dau. Ezaugarri hori eta balore nutrizionala dala eta, asko jaten zan. Fruitu lehorra izanda, intxaurrak osasunerako hainbat propietate mesedegarri daukoz: kalitate handiko proteinak, antioxidagarriak, bihotzerako eta burmuinerako ona, kolesterolaren aurkako ona...

Intxaurrakaz batera, beste produktu nagusia eta egunero hartzen zana esnea da. Eta biak dira hain geurea dogun postre horren osagaiak; aintzina asko kontsumitzen zan, baina aurreko mendeko 40. hamarkadan almendrazko turrroiak agertu zirenean, baztertu egin zan. Gaur egun, ostera be, goi mailako sukaldaritzan *delicatessen* bihurtu da sukaldari ospetsu euskaldunek, betiko zaporeak berreskuratzeko beharrari esker. Errezetaren oinarria intxaurrak, esnea eta kanela dira. Errezeta batzuetan makailaoa be botaten dabe. Beste batzuek txokolatea, ogi siku apurrak, irina edo ogi txingartua. Izatez ez da laguntzeko saltsa bat baina gaur egun dultzeen, flanen, izozki edo pastelen oinarri izateko be erabiltzen da.

Busturialdeak kontserbatzen dau tradizino gastronomiko hau etxe askotan batez be baserrietan." *Prestaketan etxe-ko umeei hartzen dabe parte, geuk be egiten genduan eta oin geure lobak; intxaurrak apurtzen laguntzen dabe. Lehenengo-lehenengo intxaurrak ondo-ondo matxakatu behar dira, esnea, kanelea eta gatza bota eta egosten ipinten da. Intxaur apurtua eta azukrea bota gero. Danari eragin ondo eta gero, zerbitzatu. Gurean epela gustetan jakun eta nire gizonarenean hotza*" dinosku lbarrangeluko batek. ■



Intxaur Saltsa Errezeta tradizionala

4-5 LAGUNENTZAT.

- 600 ml esne
- 100 gr intxaur azal barik eta apurtuta
- Kanela adarra
- Azukrea (gura dana)

.....

PRESTAKETA: su baxuan ipini esnea eta kanelea egosten; irakiten hasten danean intxaurrak bota eta egosten itxi geldi-geldi (30 min) Noizik noizera eragin. Azkenean azukrea bota. Beroa, epela edo hotza zerbidu leike. Postrerako edo gosaltzeko ezin hobea da.

TXATXARRAMENDIKO PARKE BOTANIKOA



Sukarrietako Txatxarramendi irla

Txatxarramendi San Dindere irlatuaren ondoan dago, biak dagoz itsasadarraren barruan, eta biak Sukarrietan. Marea behean dagoenean, irla biak lotzen dauzan paseotik ibilaldi polita egin geinke; Sukarrietatik Txatxarramendira doan zubitik be heldu ahal gara.

Badiak historia handia dauko: K.o.II.mendean erromatarrek kabotaje-portu moduan erabili eben; 1896-1947 bitartean Txatxarramendi Hotela egon zen, eskualdeko turismoaren aitzindaria izan zana; 1930ean itsaski edo zetazeo-haztegia egon zan; gatza eta karea kargatzeko lekua; karobia, tren eskualdera heldu izanaren lekukoa eta gaur egun,

AZTI Arrantza eta Elikadura institutua eta Urdabaiko artadi kantauriarren parke botanikoa dagoz.

Txatxarramendi irlako artadia, eskualdeko artadi kantauriarren erreplika da miniaturan, 2 hektaratan Urdaibaiko artadi masarik zaharrena dogu. Hotela egon zanean, ondo jagon zan eta mantenimendu beharrak be egin diranez, iraunkortasuna bermatu da. Bistak ikaragarriak dira, xarmaz betetako pasioak eta irla itxura dauen guneko publiko hau askok eta askok bisitatu dabe. Gaur egun, bertako tamainu handiko arteak eta gurbixak, bakarrik dira eskualdean. Bitxia da arteek dauken egokitzapen gaitasuna, irlako lur harritsuan sustriak kiribilduz.



Txatxarramendiko parke botanikoak Biosfera Erreserbako artadi kantauriarren aberastasuna erakusten deusku distiratsu. Sukarrietan, izen bera hartzen dauan irilan dago, balore botaniko handia eta ingurune apartean, Gernika-Mundaka itsasadarraren bokalean bertan-bertan. Baratze hau estuarioaren leku naturalak ikusteko ezin hobea dogu.



Txatxarramendiko paseoa

Txatxarramendi parke botanikoa Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak espezieen identifikazio eta interpretazio gune moduan egokitu eban 2000. urtean. Espezieen plaka identifikagarriak eta kanpoko paisaiaren eta irlatxuaren balore naturalen eta faunaren interpretazio panelak ipini ebezan.

Txatxarramendi parke botanikoan 25 espezietik gora dagoz katalogatuta eta seinalizatuta, ezagutu, errespetatu eta bere egoera naturalean kontserba dagiguzan. Irlatik paseotxu bat egitea nahikoa da ikusteko: gartxua, gurbixa, erinotza, artea, zuhandorra, sahatza, basaerremua, karraskila, astigarra, gerizondoa, huntza, Aleppo pinua, Pyracantha, elorri zuria, arbustua, keriza- erinotza, legeltxorra,

erratza, endalarra, aritz kanduduna, sasi-larrosea, elorri balaza, basagurbea, apomahatsa eta sasi otxarra.

Landaredia aberastasuna bestekoa da fauna, gune natural honetan babestua dago gainera. Txonta arrunta, amilotxa, zozoa, txantxangorria eta erregetxo bekainzuria ikusiko doguz. Irlatik itsas hegaztiak be begiztatu ahal doguz paduran: martin arrantzalea, lertxuntxo txikia, lertxun hauska-rea eta ubarroia, besteak beste. ■

OGI SALUTAUE, Ogi bedeinkatue

Gure tradizioek elizako sinismenagaz eta gizaldietan gurasoengandik seme-alabengana pasau diran usadiuekaz dauke zer ikusia. Gaur egun be ezagutzen dogu "ogi salutaue" edo Gabon gabeen bedeinkatzen dan ogia. Errito hori animaliek eta pertsonen amorrurik ez izateko, itsasoa baretzeko, ibaiek gainez ez egiteko... egiten zan.



Gure kulturaren ogia sakratua izan da eta gurtu egin da Europako beste lurralde askotan moduan. Gaur egun, ondiño, etxe askotan egiten da “ogi salutaen” errittoa Gabon gabea: aitzak bedeinkatzen dau mahaia, kutxilo punteagaz gurutzea egiten dau ogiaren gainean, mun egiten deutso eta koskorra moztu eta zamauaren azpian gordetzen dau afari denboran. Afaldu ostean trapu garbi batez tapau eta gorde egiten da hurrengo urte arte. Esaten zan ogi horrek aparteko birtuteak eukozala eta sendagaia zala. Inoiz ez zala urdintzen, eta etxeko nonor gaixotzen zanean, ogi horren zatitxu bat emoten eutsen, animaliei be bai. Ibaiak ur asko baekarren edo itsaso zatarrak baegoan, ogi horren zatitxu bat botaten zan eguraldia baretzeko.

Busturialdean be egiten da errittoa hori baina esan geinke herri bakotzak eta etxe bakotzak bere modua daukela. **Bermion**, afaria hasi aurretik eta amak erreza bitartean, aitzak ogiaren erreneko aldean egiten eban gurutze bat kutxilo punteagaz eta kuskurre ebagiten eban. Ogi zatia armariuan gordetzen zan urtebete. **Ajangizen**, aitzak Aita Gurea errezeten ei eban lehenengo eta gero ogia bedeinkatu, zati bat kendu eta eskapoloteko tiradorean gordetzen eban; amorruta hartzen eban patariei emoteko. **Nabarnizen**, Gabon gabea egindako ogiari zati handi bat kentzen eutsen. Etxeko guztiek jaten eban, lagunak eta animaliek. Geratzen zana armairuan gordetzen eban hurrengo urte arte. **Forun**, “Ogi salutaen” gordetzen eban eta Pazko egunean aita bitxi-amabitxi besoetakoei mokotsa deitzen zan ogia erregaleten eutsen. **Ean**, amak ogia hartu, kutxiloagaz kurtzea egin, mun emon eta koskorra kentzen eutsen; ogi zatia hurrengo urte arte gordetzen eban. Gabon afaritan aurreko urteko ogi zatiagaz zopea egiten eban eta etxeko patarien jatekoari be botatzen eutsezan zatiak.

Ibarrangelun, baserriko laban erreten eban ogia eta Gabon gaberako labaldi barria egiten zan. Aitzak bedeinkatzen ebalta ogia gurutze bat eginda eta lehenengo zatia hurrengo urterako gordetzen zala kontetan dabe nagusiek.

Mendatan, etxean egindako ogia bedeinkatzen eban, zati bat hartu eta mahai gainean eukiten eban afaritan. Jazarri aurretik danak jaten eban aurreko urtean gordetako ogiaren zati bat.

Bizitzaren zentzuari lotutako holako usadioei -erlijio izpiritu handiagaz eta gaixotasun kaltegarrii eta naturaren fenomeno suntsitsaileen beldur- gaur egun onartu eta balorea emoten jake, guk jagon eta gogoratu behar dogun izaeraren parte eta nortasun propioaren jabe moduan. ■



Arrotz

EGURRAREN IBILBIDE TURISTIKOA

Urdaibaiko basoetan murgil
zaitez, **AROTZ**, egurraren
ibilbide turistikoagaz.
Familian, bikotearekin, lagunekin...
urte guztian zehar.

Erreserbak: visiturdaibai@nuevaeuropa.com

Tel. 94 625 06 06 - 634243762 / www.visiturdaibai.com


Bizkaia

 Zer ideia ona!
nueva europa
EKIMEN TURISTIKOAK